

OHAR BATZUK *DEIO* IZENAREN GAINEAN

Iruñean, 2005eko urriaren 21n

Patxi Salaberri

Deio izena *Deierrri* toponimoaren baitan dago bizirik, hau, Onomastika batzordeak ikusi zuen bezala (2004: 246), *Deio herria* baita, hots, «Deioko, Deio inguruko eremua». Batzordeak, Jimeno Juriori jarraikiz erraten duen moduan, *Deio* eskualde osoaren izena zen, nahiz eta gero, *Lizarra* edo *Estella*-ren garapen ekonomikoa, *Estellerria* edo *Tierra Estella* izan nagusitu zen deizioa, *Deierrri*-ren kaltetan. Bestalde, dokumentazioak salatzen duenez, *Dicastillo* edo *Deikaztelu*-ren oinarrian ere *Deio* bide dago; honetan, guenera, eta itxuraz behintzat, osagaien hurrenkera euskararena da, ez erromantzearena.

Ondoko lekukotasun hauek aurkitu ditugu dokumentazioan: *Senior Sancio Fortunionis dominator Sancti Stephani de Deio, testis, confirmans*; *Senior Sancio Furtunionis dominans Sancti Stephani de Deyo, testis* (1060, Lakarra, 1965, 17, 18), *Senio Santio Fortuniones, dominator Sancto Stephano de Deio* (1060, Martín Duque, 1983, 62), *Senior Eximinus Garsie in Deyo testes* (c. 1068, Goñi, 1997, 21), *Senior Garsias Sanz in Sancti Stephani de Deio* (1080, Martín Duque, 1983, 107), *Senior Santio Sanç in Sancti Stephan de Deia* (1084, Martín Duque, 1983, 113), *nominatim senior Eneco Fertuniones de Deio Castello* (1099, Lakarra, 1965, 74). Ikusten denez, XI. mendean *Deio* ze- goen 1084ko *Deia*-z beste lekukotasun guztietan.

Deio izenaren etorkia dela eta, erran behar da ez dela aise ikusten nondik atera den: egia da *-io* bukaera duten beste leku izen batzuk badirela Euskal Herrian: *Berrio* (*Berriobeiti*, *Berriogoiti*, *Berriozar*), *Elorrio*, *Gorrio* (Oibar haraneko herri hustua), *Orio* (cf. *Oria* ibaia), *Orrio*... eta abar, Estellerriko bereko *Etaio*-z landara. Toponimo hauetako batzuk deskribatzaileak izan litezke (*Elorrio* < *elorri*, *Orio* < *hori* kolorea, *Orrio* < *orri* «hostoa»... Honen inguruan ikus Salaberri, 1997), baina *Deio*-ren azpian egon litekeen *de(i)*- zer ote den ez dakigu; *deia* euskal hitz arrunta ez ohi da, dakigula, toponimian ageri.

Izena azaltzeko beste bidea, deskribatzailea ez dena, antroponimikoa da, alegia, oinarrian pertsona izena dagoela kontu egitea, *Labio* (< **Labiao* < *Labiano*), *Otxandio* (< **Otxandiao* < *Otxandiano*) eta *Undio* (< **Undiao* < *Un-*

diano)-n bezala (1), hots, **Deiano*, **Teiano*-ren moduko bat, edo, baita ere, eta erromantzearen esku-hartzea onartzen bada, **Debiano*, **Dediano*, **Tebiano*, **Tediano*-ren tankerako zerbait, beharbada *Deiuo*- (< *deiuos* «jainkkoa, jainkotiarra») izen zeltaren eratorriren bat (Albertos, 1966: 104), *Deiuo*- > *Deiuo*-metatesia gertatu dela ontzat hartuz gero behinik behin; hau, zernahi gisaz, alegiazko kontu hutsa besterik ez da. Albertosek berak (ibid., 224) alegiazko forma horien eite zerbait duen *Teda* biltzen du «Galia Cisalpina» delakoan, *Tedi* genitiboa Pedrosa del Rey-n eta *Teida* Sigüenzan (lehen eta azkena femeninoak dira). J. Gonzálezek (1997: 202) Pedrosa del Rey-ko idazkun osoa biltzen du (2): *Monum(entum) / Tedi vicani / Vadiniensis, / Doiteri f(i)lii, / an(n)orum / XXX* «Monumento de Tedo, aldeano vadiniense, hijo de Doitero, de treinta años».

Tedi hori genitiboa dago, eta nominatiboa, beraz, *Tedus* izanen zen, J. Gonzálezek berak aurkibidean idazten duenez. Jakina, gorago aipatutako **Tediano* lortzeko **Tedius*-en moduko bat behar genuke, ez *Tedus*, baina irudi du hau ez dela baitezpadakoa, erraterako aipatu ere dugun *Otxandiano* izena segur aski *Otxoa*-ren hipokoristikoa den *Otxando*-n oinarrituta dagoelako, ez **Otxandio*-n. Beste aukera, balizkoagoa gure irudiko, jatorrian **Otxande*-ren tankerako bat zegoela pentsatzea da, *Otxandez* patronimikotik abiatuta (ikus Salaberri: 2003: 371). Honen arabera **Otxandeano*-ren taxuko batetik *Otxandiano* aterako zen lehenik, **Otxandiao* gero eta *Otxandio* azkenik, hau dokumentazioan aski goiz ageri bazaigu ere, 1150ean zehazkiago erran, Iturritza eta Zabalarri sinestera behintzat (1884: 94).

Otxandiano, *Otxandio*-rako eman dugun aurreneko azalpenaren oinatzetan, badirudi **Tediano* *Tedus*-etik ere atera zitekeela, alegiazko **Tedius*-etik ez ezik; honela dio Kajantok (1982 [1965]: 107) jabegoa adierazten duten *-anus*, *-ana* / *-ianus*, *-iana* atzizkiez latineko *cognomina*-k aztertzean:

«In Latin, *-anus* was largely a suffix of proper names, forming adjectives from PNs and from personal names, primarily from gentilicia, subsequently also from cognomina. The original form was *-anus*, the form *-ianus* originated through false analogy from cognomina derived from gentilicia, *Aemil-ianus*. Cicero still avoided *-ianus* except in *-on*-stems, but afterwards it replaced the older form».

Zentzu berean mintzo da liburu horretan behin baino gehiagotan (ikus, orobat, 31. or. eta hurr., 101-104. orr. eta 109. or.). Latineko sistema onomastikoaren bilakaeraz Piel (1947: 147 eta hurr.) eta Salaberri (2003b: 15 eta hurr.) ikus daitezke, besteak beste, eta aipagai dugun atzizkiaren toponimiako erabileraz Piel (ibid.) eta Caro Baroja (1945, 4. atala).

(1) *Zandio* ere multzo honetakoa dela irudi du, baina inoiz ez da dokumentatzen **Sandiano*, **Zandiano*-ren modukorik (ikus *NHI*, 146).

(2) Nafarroako erromatar idazkuntan ez da ageri *Deio*-ren oinarritzat har daitekeenik, 1981 arte ezagutzen zirenetan segurik ez; ordu artekoak biltzen dituen Castillo, Gómez-Pantoja eta Mauléon lanean, behinik behin, ez dago horrelakorik.

Etorki antroponimikoaren alde eginen luke hastapenean horzkaria (*d-*) azaltzeak, hau, jakina denez, ez baitzen ageri euskararen sistema fonologiko zaharrean. Honetarako Bähr (1948: 171), Mitxelena (1951: 579-580) eta Lakarra (1995: 201) ikus daitezke. Mitxelenaren arabera, hasieran *d-* duten euskal hitzak adizki trinkoen eratorriak dira, maileguak, hots hitzak eta *d-* bigarrenkaria dutenak (*dostatu* erraterako, *jostatu*-tik). Cf., honen kariatara, Uxueko *Durtunbera* toponimoa, gero *Turtunbera* bihurtu dena (asimilazioz segur aski), Bizkaiko *Durango* ezaguna, Santanderren eta Burgosen *Tudanca* etorkikidea dukeena (A. González, 1999: 378), edo indoeuropar jatorriko *Deba*, zein urekin lotutako *deva* «jainkosa» zelta izenetik atera baita; ikus García Arias (2005: 782-783).

Nolanahi ere, Mitxelenak 1951ko lanean dioenez, *e-da-n*, *e-du-ki* bezalako partizipioek euskaran noizbait hasieran horzkaria -ahostuna kasu honetan zuten hitzak izan zirela frogatzen dute. Lakarraren arabera (1995: 201), hitz hastapeneko *d-* guti izatea errepikapen hitzetan lehen horzkaria disimilazioz galdutako izanari zor zaio: **de-der* > *eder*, **do-dol* > *odol*... e.a. Ikertzaile honen irudiko *d-* adizkietan agertzea hauek esaldi hasieran ezin joatearen ondorio dateke. Akitaniako idazkuntan *D-dun* antroponimoak badira, gehienak galierari badagozkio ere, hizkuntza honetakotzat ezin har daitekeen bat edo beste izanagatik (ikus Mitxelena, 1954: 451-452, J. Gorrotxategi, 1984: 195 eta 1985: 618-619). Bigarren ikertzaileak, 1984ko lanean (196. or.), *Dunaio* aztertzean honela dio: «Nombre que por su terminación *-aio-* pertenece a un grupo de antropónimos de varón atestiguados homogéneamente en la llanura del Gers: *Attaio-rigis* (gen. 463, Auch), *Condai* (gen. 555, Ciotat), *Dunai* (gen. 456, Auch), el presente *Dunaio* (dat.) e *Illai* (gen. 477, Nux)». Autore honen iritzian *-aio-* atzizkia indoeuroparra izan ohi da, baina akitaniarra ere izan liteke, oinarriaren arabera, noiz nola. Beranduagoko beste lan batean aipatutako izen horiek akitanierara egokitutako galiar izentzat ematen ditu (1995: 211).

Labur-bilduz, azalpen deskribatzailea ilun samar dakusagu eta antroponimikoa da, argi egon gabe ere, egiantzekotasun handiena aurkezten duena, ahulguneak ere izan arren. Honen arabera, *Deio* toponimoak *Tedus* izeneko pertsona baten lurra, etxea, bazterretxea adierazten zukeen hasieran. Bilakaera, orain arte errandakoarekin garbi gelditu ez bada ere, hau izanen zen: **Tedianu* > **Tediano* > **Dediano* (hasmentako herskariaren ahoskuntza dela-eta cf. *Torrano* / *Dorrao*, eta, beste maila batean, *Torres* / *Dorre*) > **Dediao* > **Dedio* > *Deio*. Azalpen honen ahulguneak hauek dira: lehena oinarritzko antroponimoa dokumentatua egotea baina ez honen *-ianu*, *-iano*-dun eratorria, eta bigarrena euskararen (**Dediano* > *Dediao*) eta erromantzearen (**Dedio* > *Deio*) eragina, baina, ikusi behar izatea.

Bigarren oztopoa gainditzeko pentsa dezakegu euskarak izena hartu orduko hau **Teiano* zela eta *-dj-* > *-j-* bilakaera erromantzearen barrenekoa izan zela. Lehen urratsa, emaitzat *-u* > *-o* izan duena, euskararen arauen kontrakoa da; honek hartu zueneko izena **Tediano*, **Teiano* zela proposatzeak ere ez du sobera laguntzen, gurean joera *-o* > *-u* egitekoa izen delako, *dermaua* (< *termi-*

na(d)o (3), baina *dermioa* < *término*), *portillua* (< *portillo*) maileguetan ikusten den bezala. Hor ditugu, dena dela, *Galdakao*, *Lazkao* eta beste, *Labio* eta *Undio* ez ezik, hauek, edo hauen tankerakoak, inoizka, bukaeran euskararekin adosago dagoen -u dutela ere agertuagatik: *Pero Periz Amilauco*, *Çandiu* (Eraul, 1350, 1366 Carrasco, 1973: 367, 565), *Dorrau*, *Dorrou* (orain)... e.a.

BIBLIOGRAFIA

- ALBERTOS, L. (1966): *La onomástica personal primitiva de Hispania Tarraconense y Bética*, CSIC & Instituto «Antonio Nebrija», Salamanca.
- BÄHR, G. (1948): *Baskisch und Iberisch*, in *Eusko-Jakintza II*.
- CARO BAROJA, J. (1945): *Materiales para un estudio de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca. Bada Txertoak Donostian 1990ean egindako beste argitalpen bat.
- CARRASCO, J. (1973): *La Población de Navarra en el siglo XIV*, Nafarroako Unibertsitatea, Iruñea.
- CASTILLO, C. & GÓMEZ-PANTOJA, J. & MAULEÓN, M^a D. (1981): *Inscripciones Romanas del Museo de Navarra*, Nafarroako Foru Aldundia, PV Erakundea, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA (1990): *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra (NHI)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- EUSKALTZAINDIAREN ONOMASTIKA BATZORDEA (2004): «Dictamen de la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca / Euskaltzaindia sobre *Deierrri*, nombre del Valle de Yerri en lengua vasca», *Euskera* 49, 245-246.
- GARCÍA ARIAS, X. LI. (2005): *Toponimia Asturiana. El porqué de los nombres de nuestros pueblos*, La Nueva España, Oviedo.
- GONZÁLEZ, A. (1999): *Diccionario Etimológico de la Toponimia Mayor de Cantabria*, Estudio, Santander.
- GONZÁLEZ, J. (1997): *Los Cántabros*, Estudio, Santander.
- GOÑI GAZTANBIDE, J. (1997): *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona 829-1243*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- GORROTXATEGI, J. (1984): *Onomástica Indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

(3) Hemen menturaz gaztelaniaz aski ohikoak diren oraingo formen ildoko *terminau proposa daiteke iturburutako.

- (1985): «Lengua aquitana y lengua gala en la Aquitania etnográfica», *Symbolae Lvdovico Mitxelena Septvagenario Oblatae*, J. L. Melena arg., I, 613-628, Gasteiz.
- (1995): «Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas», *Veleia* 12, 181-234.
- ITURRITZA ETA ZABALA, J. R. (1884): *Historia General de Vizcaya*, Bartzelona. Azalean ageri den bezala, jatorrizko bertsoa 1785ekoa da.
- KAJANTO, I. (1982 [1965]): *The Latin Cognomina*, Giorgio Bretschneider arg., Erroma.
- LAKARRA, J. A. (1995): «Reconstructing the Pre-Proto-Basque», *Towards a History of the Basque Language*, J. I. Hualde & J. A. Lakarra & R. L. Trask arg., John Benjamins publishing company, Amsterdam / Philadelphia, 189-206.
- LAKARRA, J. M. (1965): *Colección Diplomática de Irache. Volumen I* (958-1222), CSIC, Zaragoza.
- LAKARRA, J. M. & MARTÍN DUQUE, A. (1986): *Colección Diplomática de Irache. Volumen II (1223-1397. Índices 958-1397)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- MARTÍN DUQUE, A. (1983): *Documentación medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Nafarroako Foru Aldundia, PV, Iruñea.
- MITXELENA, K. (1951): «La sonorización de las oclusivas iniciales. A propósito de un importante artículo de André Martinet», *BRSVAP* 7, 571-582.
- (1954): «De Onomástica aquitana», *Pirineos* X, 409-455.
- (1977): *Fonética Histórica Vasca*, bigarren argitalpen zuzendu eta handitua, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- PIEL, J. M. (1947): «Nomes de «possessores» latino-cristãos na toponimia asturo-galego-portuguesa», *Biblos* 23, 143-202.
- SALABERRI, P. (1997): «Euskal toponimiaz mintzo (Nafarroakoaz bereziki)», *FLV* 74, 7-39.
- (2003): «Onomastika, euskararen azterketarako tresna», *Basque and (Paleo) Hispanic Studies. In the wake of Michelena's work. Proceedings of the First Conference of the Koldo Mitxelena Chair*, J. Gorrotxategi arg., Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz, 365-375.
- (2003b): *Euskal Deiturategia: Patronimia*, UEU, Bilbo.